


HARREMANAK

Gure enpresa 3D inpresioa ahalbidetzen duen enpresa bat izango da eta enpresa orok bezala hiru helburu ditu: Lehenik eta behin bezeroak lortzea, izan ere hauek izango dira gure diru iturria eta enpresak aurrera egin dezan hori beharrezkoa da.

Bestalde, ezinbestekoa da lortu ditugun bezero horiek mantentzea. Izan ere, beti lortu nahiko ditugu bezero berriak baina betiere lehendik genituenak galdu gabe.

Azkenik, enpresak etekinak lortu beharko ditu aurrera egin dezan. Horretarako ezinbestekoak dira bezeroak.

Bezeroak erakartzeko gure hasierako estrategia gure zerbitzua zabaldu nahi dugun lekuetara joatea izango da (unibertsitateetara adibidez) eta bertan ikasleei izango duten zerbitzu berriaren berri emango diegu. Guk zer eskaini diezaiekegun adieraziko diegu. Bestalde, publizitatea egingo dugu, bai interneten eta baita kaleetan ere. Baina bezeroa erakartzeko garrantzitsuen harreman pertsonalizatua emango diegula izango da. Hau da, bezeroak diseinatutakoa inprimatuko dugu.



Izan ere, oso ezberdinak izango dira bezero bakoitzaren beharrak, 3D inpresio enpresa bat delako eta bakoitzak inprimatu nahi duena oso ezberdina izango delako, hau da, kasu bakoitza ezberdina izango da eta horretarako harreman pertsonalizatua eskaini behar diegu, ezin ditugu bi bezero berdina aholkatu. Izan ere, ingeniariak eta arkitektoak munduan dabilzanek inprimatu nahiko dutena edo beren sormena baliatuz zerbait sortu dutenek inprimatu nahiko dutena oso ezberdina izango da. Bestalde, bezeroa enpresa bat izan edo pertsona bat izan, tratua ere ezberdina izango da, baita prezioa ere.

Autozerbitzua ere eskainiko diegu 3D inpresorak jarriko ditugun unibertsitateetako kideei izan ere, haiek izango dira diseinuaz zein produkzioaz arduratuko direnak

Hau dena kontuan izanik, bi harreman mota konbinatuko ditugula esan daiteke: Batetik, harreman pertsonalizatua, bakoitzaren beharren arabera tratua, emango dizkiegun aholkuak eta prezioa bera ere ezberdinak izango direlako. Bestetik autozerbitzua, zenbait bezerori beren produktua inprimatzeko aukera emango diegulako, baliabideak eskainiz.

Helene Mendizabal
Oliver Zubillaga
Unai Del Puerto

Beñat Landa